

Henning Mankell

*Izarretara bidean zihoan txakurra*

Itzultzailea: Juan Mari Mendizabal

Erein, Perzebal bilduma

Donostia, 2001

12 urtetik aurrera

### **AURRESENTIPENA TXAKUR BIHURTZEN DENEAN**

Henning Mankell idazle suediar ezaguna izan da Erein argitaletxeak aukeratu duena “Perzebal” gazte literaturako bilduma berriari hasiera emateko. Lehendik polizi liburuen egile gisa ezaguna bazen ere, oraingoan *Izarretara bidean zihoan txakurra* gazte eleberraren bidez azaldu da gure artera. Kontrazalak dioskunez, nobela hori tetralogia bateko lehen liburua da, duela hamarkada bat Suedian eta Alemanian saritua.

*Izarretara bidean zihoan txakurra* inimizio-eleberri bat da, Suediako barnealdeko paraje izoztuetan kokatua. Protagonista hamaika urteko mutiko bat da, Joel Gustafson, amak alde egin zuenetik aitarekin bakarrik bizi dena. Amaren falta horixe da, hain zuzen ere, nobelaren ardatzetako bat: Joelek nekez onartzen du aita beste emakume batekin ibiltzen hastea, emakume horrekin joan eta bakarrik utziko duen beldurrez. Joel jadanik ez da ume bat, heldu bihurtzen ari da, bizitzari buruzko galderak egiten hasi, eta bere nortasuna finkatu nahian gaueko herri izoztura ezkutuka ateratzen hasi da, ustez ikusi duen txakur deslai baten bila. Eleberrian aurrera egin ahala, eta neguak udaberriari bidea ematen dion neurrian, Joelen kezkak argituz joango dira, eta aitak heldua izateko bidean dela onartuta, halakotzat tratatzen hasiko da. Itsasoa inoiz izozten ez den toki batera bizitzera joateko promesarekin ixten da liburua, haurtzaro izoztua betiko atzean utziz.

Iparraldeko herri txikiko egunerokotasunean pertsonaia bitxien galeria oso bat aurkezten da, gizarte itxi autonomoa osatuz: epailearen seme misteriotsua, gauez lo egin ezinik furgonetan ibiltzen den Simon Ekaitza ustez eroa, sudurrik gabeko emakumea... Beharbada, horien guztien artean gutxien enkajutzen duena Joelen aita bera da; liburuaren hasieran haren eroaldiak deskribatzen bazaizkigu ere, semearekiko harremanean ulerkortasun neutroa azaltzen du, zuzenegia dela iruditzen zaigu.

Bestalde, liburuari izena ematen dion txakurraren erabilera aski irregularra da: hasieran agertzen da, eta bolada luze batean ez dugu haren berririk izaten. Bilaketaren metafora izan nahi du, noski, baina alde zuzenetik funtzio beteagoa iradokitzen zuen.

Eleberriak hirugarren pertsonako narratzailea darabil, gertakizunei oso atxikia, gehienetan protagonistarengan fokalizatua, baina protagonistak berak kontatu izan balu baino hizkera libre eta poetikoagoa erabiltzeko aukera ematen diona.

Amaitzeko, Juan Mari Mendizabalen itzulpena primeran irakurtzen dela esan behar da, nahiz eta argialetxearen aldetik jatorrizko titulua eta argitaratze urtea eman ez izana hutsune aipagarria iruditzen zaigun.

Manu Lopez Gaseni